

Arrasate

P R E S S



Euskararen Aldeko Hitzarmena

Dagoeneko 106 dira beren artean euskaraz lan egiteko konpromezua hartu duten erakundeak

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • **KIROLAK:** MAITANE ARIZMENDIARRIETA
IRITZIA: AINTZANE LASA • **GURE ENPRESAK:** ELKORO ELEKTRATRESNAK

JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

RONCATO VALIGERIA

Spek Denda



Iturriotz, 19 Herriko Plaza
ARRASATE


VENTANAS SAN MIGUEL LEIHOAK

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 4 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL
LEIHOAK**



902 202 502

SALMENTA OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

Euskal kultura auzitan, noiz arte?

Nik ere irakurri dut Matias Mujikak *Ostia*-la aldizkarian idatzitako artikulu eztabaidatua. Eta bere helburua bazterrak nahastea eta polemika piztea bazen, alajaina!, lortu du.

Lehenik aitortu behar dut zoriarekin libelo hitz hori ez nuela ezagutzen. Hiztegiaren begiraturata, egokien iruditu zaidan esanahiarekin geratu naiz, alegia, pertsona edo gauzak iraindu nahi dituen idazkia. Eta zinez iruditu zait iraina eta laidoa soberra daudela euskal kulturaz idatzitako zortzi orrialde horietan.

Berak erdaraz idazten du erdaraz bakarrik lortzen omen delako zer bait biribila eta sendoa esatea. Euskarak ez omen du erretorikarako gaitasunik. Gainera euskal produkzio gehiena txarra omen, nahiz eta euskaldunok, gurekoikeria sendoz, egiten den guztia



Karmele Perez

aldarrikatu eta egiten den guztiaz harrotu. Ghettoan eroso omen gaude, horrek nahi duguna egiteko askatasuna eta inpunitate ematen baitizkigu, jakina, beti ere administrazioaren diru laguntzei esker eta gizarte osoaren lepotik, gu gutxiengo absolutua izan arren. Euskal literatura hilaurreko gaitasun egoeran kokatzen du eta euskal kulturak orokorrean egiten duen guztia, inguru-

ko eremu zabaleko kulturen kopia eta imitazioa baino ez da. Gainera, hezkuntza maila jakin batetik gora zaila omen da berezko barne hizkuntzatza euskara duenik aurkitzea. Eta kontsumitzen dugunon artean, kontsigna ideologikoen euskara hutsean irakurtzera behartzen omen gaituzte, kalitateari jaramonik egin gabe.

Egia da euskararentzat folklore eta tradizioetik kultura eta modernitate salto egitea pausu zaila dela eta horretarako inguruko esta-

tu hizkuntzak hartu behar izan dituela eredutzat. Egia da salto horretan errekurtsio eza handia dela eta egia da sarri prozesu hori ez dela bide egokienetik joan. Akatsak eta erruak ikustea eta salatzea da beti errazena, hori denok egiten dugu. Zailena, horien gainean bide egokia aurkitu eta etorkizunerako kalitatezko euskal kultura eraikitzea da, Eduardo Gil Berak ere egosten dion mediokritate absolutuari ihes egingo diona. Euskaradunok, oro har, ez dugu euskara hutsean irakurtzen, ahal dugun hizkuntza guztietan baizik, eta uste dut nahiko edo oso kritikoak garela hemengo produkzioarekin, berezko nahiz itzulpenarekin. Eta duela urte batzuk ez bezala, gaur esan daiteke idazle eta obra euskaldun oso onak badaudela, eta itzulpen eta itzultzaile oso onak ere bai, azkenean. Prozesu guztiek denbora behar dute eta gureari ez diote hori aitortu nahi.

Gure kulturak ez du behar euskarara etorri eta bere aspirazioak betetzen ez dituelako bazterrak nahasteari ekiten dion inor. Kultura jende eraikitzailea behar dugu, ez hondatzailea. Horretarako baditugu politikoak.

“Gaur egun esan daiteke idazle eta obra euskaldun oso onak badaudela”

“Hankasartze izugarria iruditu zait Euskal Abokatuen Sindikatuak epaitegietan euskararen kontra daudenen izenak markatzeko asmoa”

Nekane San Migel

%83

udal langile euskaldunak

Arrasateko Udalan hamar langiletik zortzi euskaldunak dira, hau da, udal euskaltegiko zortzigarren maila gaintutua dutenak. Udalak 123 langile iraunkor eta 68 behin behineko ditu; iraunkorretatik 100 euskaldunak dira eta behin behinekoetatik 59.

ITURRI ONETIK

Marihuana ikas bidaiarako

Ikas bidaia puri-puritan daude sasoi honetan Arrasateko ikastetxe gehienetan: batzuk Bartzelonara, Amsterdamera besteak, Salamancara, Londresera, Mallorcara... helbideak asko dira eta gaztetxoek gustukoak.

Badakigu beti izan dela horrela, baina hala ere, harritzekoa da bidaia hauetan batzuek erabiltzen dituzten diru kopuruak. Ez da arraroa bidaiako gastu guztiak estalita dituzten ikasleek 25.000 pta eramatea gastuetarako. Bost eguneko bidaiak ari gara hitz egiten. Horrez gain, izan da joan aurretik 25.000 pta marihuana erosi duen talderik, bidaian zehar erretzeko. Hamasei urteko neska-mutilerik ari gara.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65, Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Anzabab. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Marian Porcel, Nerea Gorrion. **Publizitatea:** Kaitin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Txos Azumendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joverna Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenago, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urizarren, Bixente Pagotaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Iasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jon Ruiz de Zarate.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturari Salaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 24

• Gauez: Irizar, Erguin

Larunbata 25

• Gauez: Amezua, Santa Marina

Igandea 26

• Gauez: Zabala, Zarugalde

Astelehena 27

• Gauez: Ruiz, Magdalena

Asteartea 28

• Gauez: Morales, San Andres

Asteazkena 29

• Gauez: Azkoaga, Ferrerías

Osteguna 30

• Español, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
Igalatorioa 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 79 39 00
(emakumeak) 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 76 55 76

DYA

Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 77 03 46
• Espezialitateak 77 05 78
. 77 12 64
Oñati 78 08 52
Eskoriatza 79 98 58
Aretxabaleta 79 74 58
Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 78 04 11
Bergara 76 14 69
Arrasate 79 14 39
Aretxabaleta 79 10 52
Eskoriatza 088

Ertzaintza

Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 79 78 44
. 79 76 78

Garraioak

Taxiak 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

KIUB-OMIC 79 51 55

Monterron liburutegia

Monterron 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 79 58 77

ETTRIK EZI

Eskoriatzako gazte talde bat gara eta erabaki dugu aldizkari honetara idaztea ohikoa den egoera bat salatzeko.

Martxoaren 12an, oste-gunez, greba antolatu genuen Aldi Baterako Lan Enpresen aurka, Duinak mugimenduak antolatutako Aztoratze astearen barnean.

Gure asmoa zen Aldi Baterako Lan Enpresen aurka lan egitea edo erreibindikatzea behintzat. Ez zen hau gertatu, ordea: leloak nahastu eta askok ez zuten zerikusi handirik gaiarekin. Egoera hau ohikoa eta tamalgarria denez, komunikatu hau atezatzea erabaki dugu.

Hala ere, ez dugu uste Ertzaintzak eginkizun egoiegia bete zuenik. Ekintza

bukatu eta berehala, gazte talde jakin baten atzetik korrika hasi eta txoko batean zokoratu zituzten. Toki hartan identifikatzeko eskatu eta azken hau lortu ondoren, multa edo zigor bat jarri zieten ekintza "legez kanpoko" zelako.

Gure galdera hurrena da: zergatik ez zuten hasieran esan eta egoera hau saihesten saiatu?

Zoritxarrez, badakigu herri askotan gertatzen den egoera dela, baina ez dugu uste ixilik geratu behar garenik.

Besterik gabe, agur bero bat.

Luar
(Eskoriatzako Gazte Taldea)

BONBA TALDEARI:

Joan den igandean, apirilak 19,

Diario Vascon agertutako Bonba Taldearen afariari buruzko artikulua zioenez, "...afaria Bergarako Jam diskotekan ospatuko da, ez baitute behar adineko lekuri aurkitu Arrasaten... Dagoeneko 120 kidek eman dute izena afarirako eta ezinezkoa izan zaie horrenbeste laguntzako jangela aproposik egokitzea herrian...".

Artikulu honi buruz aipatu nahi nuke Bonba Taldea Arrasatekoa denez, herrian bertan jatetxe edo lokal batek baino gehiagok dutela horrenbeste laguntzako lekua. Hurrengo baterako esan nahiko nieke ospakizun batek egiteko ez dagoela herriko jate-txeen aurkako propaganda-rik egin beharrik.

J.A.
15.395.496

Kazetari berria

Aste honetan Marijo Deogracias aurkeztu nahi dizuegu. Antzuolan jaio zen orain 25 urte, kazetaria da eta apirilaren 2tik aurrera, bera arduratzen da kirol sailaz. Ongi etorri, Marijo!

Lerro hauen bidez agur esan nahi diogu, bide batez, Itxaro Zubillagari. Dakizuenez, bera arduratu da azken lau urte hauetan kirol sailaz. Orain ETBn ari da, *Egun Ero* saioan. Mila



esker, Itxaro, eta zorterik onena!


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 71 24 25

Zer moduz igaro dituzu oporrak?

Hotza, elurra, euria, haizea eta kazkabarra izan genituen Aste Santuko oporretan



Agustin Algaba
30 urte
dendaria

Hemen gelditu naiz, lasai-lasai, bakean. Agian Badajozeko herriren batera joan nintekeen, baina Arrasaten gelditu naiz.



Arantzazu Zubizarreta
45 urte
langilea

Mendira joateko asmoa genuen, baina eguraldi honekin etxean gelditu gara. Gainera umea txikia da oraindik.




Roberto Gorostidi
33 urte
langilea

Egun batean Errioxara atera ginen eta oso eguraldi ona egin zuen, hotza baina ona. Bestela, herrian egon naiz.



Iñaki Zabaleta
36 urte
langilea

Andaluzia aldea izan gara. Eguraldi kaxkarra izan genuen, haize boladekin, baina oso ondo pasatu genuen.



Gaizka Heriz
18 urte
ikaslea

Hemen ibili naiz. Herrian jende gutxi ibili da, baina ondo pasatu dugu. Mendira ere joan ginen egun batean eta elurra egin zuen.



Idoia Errarte
31 urte
langilea

Arrasaten izan naiz. Apur bat busti gara baina ondo pasatu dugu. Egunpasa joan nahi genuen, baina azkenean eguraldiak ez zigun lagundu.



Karmelo Urizarren
36 urte
udal itzultzailea

Kanpoan izan naiz. Oso ondo pasatu dut, atsedena hartuz. Hala ere, eguraldiak ez digu larregi lagundu, baina gustura ibili naiz.



Urri Urizar
31 urte
Txatxilipurdiko idazkaria

Ondo. Bagenuen kanpora joateko asmoa, baina eguraldi txarra dela eta, hemen geratu ginen. Hala ere, etxean ere gustura ibili gara.

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide Industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurpil aulkiak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikuluak, koltxoi bereziak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Arrasate

LANAK


SAN FRANTZISKON
Biribila egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN
Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua.

KONTZEZIÑO AUZOAN
Kolektorea eta urbanizazio lanak. Luze joko du.

TAKOLON
Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.

IGNACIO ZULOAGAN
Gasa sartzeko zuloak.



Biztanleak: 24.571
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 24



LARUNBATA 25



IGANDEA 26

Zeru lainotsuak izango dira. Tenperaturak ez du aldaketarik izango edo pixka bat igoko da.

Lainotua. Tarteka lainoak izango dira. Tenperaturak beherantz egin dezake. Haizea aldatu egingo da.

Zeruak lainotsuak izango dira eta tarteka euria egin dezake. Hoztu egingo du, haizeak Iparraldetik joko du eta.

Ilargia



Ilbehera

Apirilaren 26an ilbehera izango da.

Mezak


San Frantzisko
(Frantziskotarren elizan Parrokia berri arte)
Larunbatean
09:00 (elebiduna)
Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (euskaraz)
11:00 meza nagusia (Erramu bedekapena eta prozesioa egingo da.)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila %91,3



Distantziak


| Arrasate | | | | | | | | | |
|----------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|
| 121 | Baiona | | | | | | | | |
| 690 | 579 | Bartzelona | | | | | | | |
| 57 | 170 | 620 | Bilbo | | | | | | |
| 1.159 | 1.038 | 2.883 | 1.207 | Brusela | | | | | |
| 72 | 50 | 529 | 119 | 1.088 | Donostia | | | | |
| 40 | 180 | 530 | 66 | 1.206 | 118 | Gasteiz | | | |
| 107 | 120 | 437 | 159 | 1.180 | 92 | 93 | Iruñea | | |
| 391 | 519 | 621 | 395 | 1.556 | 469 | 351 | 407 | Madril | |
| 864 | 743 | 1.113 | 911 | 296 | 792 | 910 | 884 | 1.260 | Paris |

gazte ikastaroen dantzak



1) gaur egungo dantza eta jazz dantza
hastapen mailako ikastaroa
Irakaslea: Ana Mendiola
(Patterson metodoa)
astearte (arrats. 19:00-21:00)
eta larunbatetan (17:00-19:00)
maiatzaren 5etik ekainaren 6ra
Arrasate Musikalen
matrikula: 5.000 PTA
(3.000 ikasle eta langabetuentzat)

2) Karibeko dantzak
(salsa, merenge, bachata)
hastapen mailako ikastaroa
irakaslea: Julio Lantigua
astelehen eta asteazkenetan,
19:30etatik 21:30etara
maiatzaren 4tik ekainaren 3ra
Musakolako Saloian
matrikula: 4.000 PTA
(2.500 ikasle eta langabetuentzat)



ARRASATEKO UDALA

Plaza mugatuak:
Izen emateak: (Tel. 770065)
Gazte Bulegoa

Gazteria Saila ■

24

ostirala

■ BIDEO-EMANALDIA

Liburuaren eguna dela eta, bideo-emanaldia antolatu dute Monterrongo hitzaldi aretoan. Jane Campionek zuzendutako "Retrato de una dama" bideoa eskainiko dute. Henry Jamesen eleberrian oinarritutako bideoa arratsaldeko 19:00etan izango da.

■ ZINEA

Atrapada entre dos hombres. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta gaueko 22:00etan.

25

larunbata

■ ALTAMIRAKO JAIAK

Goizeko 10:30etan suziri eta dultzaineroak. 11:30etan, haurrentzako jolasak antolatu dira. 13:00etan auzo taberna irekiko da. 16:30etan, suziriak berriz ere, marrazki lehia- ketari hasiera eman aurretik. 18:00etan txokolatada eta 18:30etan Dantza Txikitxu Taldearen saioa eta jubilatuei omenaldia. 19:00etan San Frantziskon meza esango da. 19:15etan buruhaundiak. 22:00etan, Txinparta taldearen dantzaldia.

■ JAIALDI GASTRONOMIKOA

Aita Menni ospitalekoek herrialde desberdinen arteko jaialdi gastronomikoa antolatu dute. Goizeko 10:30etan hasiko da, ospitaleko kanpoko patioan. Arratsaldeko 16:00etan, Galdakaoko bandak musika emanaldia eskainiko du.

■ ANTZERKI BARREGARRIA

Green Ginger taldearen "Slaphead" lana ikusteko aukera izango da Amaia Antzokian. Saioa 22:30etan hasiko da eta sarrerak 1.000 pezetan salduko dituzte.

■ ZINEA

Flubber y el profesor chiflado. Alai zineman arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta gaueko 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek mendi irteera antolatu du Aigues Tortese-ko parke naturalera. Irteera, goizeko 04:30etan izango da, Garibai kalean.

28

asteartea

■ HITZALDIA

Emakumeen Asanbladak antolatuta, Sudaneko emakumeen egoerari buruz ari- tuko dira Monterronen. Hiz- laria Omaira Sheikheldin izango da, zientzia politiko- etan lizentziatua. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izan- go da.

■ ZINEA

Flubber y el profesor chi- flado. Alai zineman, arra- tsaldeko 19:00etan eta gaue- ko 21:30etan.

26

igandea

■ EKOLOGISTEN IBILALDIA

Elgeako Zentral Eolikoaren aurkako ibilaldiren adar bat Arbolapetatik irtingo dira 08:15etan.

■ ANTZERKI BARREGARRIA

Leo Bassi aktorearen saioa izango da Amaia Antzokian. Bassik "Instintos Ocultos" izeneko lana eskainiko du 19:30etatik aurrera. Sarrera 1.000 pezetan.

■ ZINEA

Flubber y el profesor chi- flado. Alai zineman, arratsal- deko 17:00etan, 19:30etan eta gaueko 22:00etan.

Gaur kontzertua JAM aretoan!

Taldeak:

- Miel de hiel
- Fly shit

Gaueko 21:30etan 500 pta.

Egin zaitez JAM KLUBeko bazkide eta aprobetxatu gure abantailak!

5.000 PTAREN TRUKE SARRERA DOAN URTE OSOAN ZEHAR

(ekitaldi berezietan izan ezik) Informa zaitez klubaren kultur irteera eta ekitaldiez.

Rolling Stones

San Mameserainoko autobusa + kontzertua Prezioa: 8.000 PTA.

Bidaia eta sarrera 7.500 PTA klubeko bazkideek



Izen ematea 76 35 81 telefonoan. Santalaitz, 5 • BERGARA

29 asteazkena

■ BIDEO-EZTABAIDA

Jesus Mari Zalakain eta Jose Luis Herreros,—EHUko irakasle kaleratuak—, “Euskal hezkuntza sistema propioaren alde” bideo emanaldia aurkeztuko dute. Udaltzeko pleno aretoan izango da, 18:00etan; ondoren eztabaida izango da.

■ MACBETH ANTZEZLANA

Aita Menni ospitaleak *Macbeth-etik hasi eta Don Mendoraino* antzezlanaren antolatua du astelehenerako, apirilak 27. Ana Paula Jauregi eta Fernando Mikela Jauregi izango dira antzerkilariak. Saioa arratsaldeko 16:00etan izango da.

■ SEVILLARA BIDAIA

EKINEK Sevillara joateko bidaia antolatu du maiatzaren azken asterako edo ekaineko lehen asterako. Izena emateko, 77 12 28 zenbakira dei daiteke, edo AEDren bulegotik pasa eta

Onintzaz galdetu. Izena emateko azken eguna: maiatzaren 18a.

■ 52KO KINTOEI DEIA

1931n jaiotakoek maiatzaren 16an ospatuko dute kinto eguna. Meza San Frantziskon izango da 13:00etan. Ondoren txikiteoa egingo dute, bazkaltzeko ordura arte. Hostal jatetxean izango da bazkaria 14:15etan. 52ko kintoak Luis Gutierrez “Guti”, Paco Bonet, Angel Dominguez, Julio Marañon edo Rafa Fernandezekin egon daitezke, izenak emateko.

■ SAN FELIPE APOSTOL ELKARTEAREN MENDEURRENA

San Felipe Apostol elkarteak mendeurrena ospatuko du maiatzaren 10ean. Elkarte honetako bazkide titular guztiak daude gonbidatuak bazkariara. Joan nahi duzuenok, Alberto Ojanguren deitu, 79 16 82 zenbakira, apirilaren 26a baino lehen.

30 osteguna

■ ZINEA

Desmontando a Harry. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta gaueko 22:00etan.

■ SAN JOANETAKO DANBORRADA

San Joanetako umeen danborradan parte hartzeko izen ematea zabalik dago SUDC elkartearen. Interesatuak 17:30etatik 19:30etara pasa daitezke elkartetik, maiatzaren 30a baino lehen. Danborradako entseiuak astearteetan eta ostegunetan izango dira San Viator Txikin, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.



beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETAK

USTEAK USTE

Europako herri telebistak

Datorren astean, Arrasate Telebista Europako Arte Telebista izena duen katean izango da mintzagai. Ez bera bakarrik, jakina. Gau horretan Europako Herri Telebistak aztertuko dira. Gurearekin batera, Poloniako telebista katoliko bat, Berlingo telebista partehartzailer bat, Madrilgo Vallecas auzoan dagoen beste bat eta Frantziako erdialdean lan egiten duen txiki bat erakutsiko dituzte.

Arrasate Telebista arrazoi batengatik aukeratu bide dute: kultura proiektu baten inguruan lan egiten duelako.

la bi egun igaro dituzte kazetariak gure artean, jendea elkarrizketatzen eta irudiak hartzen. Proiektu sendoa, interesgarria eta ondo eramana iruditu zaie ATB. Bere txikian, indartsua. Egiaztatu ahal izan dute bai telebistak bai eta aldizkariak ere arrasatearren artean duten atxikimendua. Goian aipatutako tokietan ere, beste horrenbeste gertatzen omen da. Hurbiltasunaren indarra.

Joxe Aranzabal



Euskararen hitzarmena

Aintzane Lasa *

Bada arlo bat Euskal Herriko hizkuntza normalizazioan oraindik ia jorratu gabe dagoena eta normalizazio bidean sartzeko beste arlo askok baino zailtasun gehiago dituena: lan esparrua hain zuzen.

Zortzi urte pasatu dira AEDk eta Arrasateko hiru ikastolek (San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza) euskararen erabilera sustatzeko egitasmo berri bat plazaratu zutenetik. Egitasmo hori hainbat erakundek bere egin eta hitzarmenaren forma hartu zuen. 1990eko martxoaren 28an euren arteko harremanak euskaraz izateko gogoak eraginda, Arrasateko 38 erakundek euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Mota guztietako erakundeak daude hitzarmena sinatu dutenen artean, hala

nola, 20 ikastetxe edo akademia, 5 erakunde publiko, 18 zerbitzu enpresa, 8 industria enpresa, 2 aurrezki kutxa, 7 alderdi politiko eta sindikatu, 20 kultura elkarte, 12 merkataritza, 6 kirol elkarte eta sailkatzen zailak diren beste 8 erakunde. 106 erakunde guztira.

Hitzarmenak horien artean, 10 aurten sartu dira, eta hauek dira: Aldibi autok, Arrasate Musikal, Emun Koop. Elk, Ezker Sindikala, Euskalan, GATC, Halcon Bidaiak, Jubar Ateak, Lizarralde Kirolak, eta Deba Garaia Beti Prest kultura elkarteak.

“ Loreak ostoz guztiak behar dituen bezalaxe, euskarak ere denon laguntza behar du ”

Lehenengo hitzarmenaldian erakundeen arteko harremanak euskaraz izateko konpromezua hartu zuten hitzarmenakideek, eta lehen urteetan erakundeen idatzizko harremanen jarraipenari eta hizkuntza aholkularitza eskaintzeari eman zitzaion lehentasuna.

Hitzarmenakideen idatzizko harremanak, neurri batean bederen, betetzen ari zela ikusita, beste urrats batzuk eman beharra zegoela ikusi zen. Honela, 1993ko martxoan, balantzea egin ostean, sakontzealdiari ekin zitzaion.

Hitzarmenaldi honetan, hitzarmenakideen kopurua handia denez, eta oso sektore desberdinetakoak direnez, hobekuntza mailakatuen bidez jo dugu. Gaur egun, neurri egindako planak egiten ditugu, hau da, erakunde bakoitzaren ezaugarriak eta hasierako hizkuntza egoera aztertu ondoren, eurekin batera zehazten ditugu aurrera begira egin beharreko urratsak. Neurri egindako planetan, helburuak mailakatuak eta neurgarriak dira.

Aurten, *Gu Be Bai* leloa erabiliz, euskararen hitzarmeneko anagrama aldatu da. Euskararen hitzarmena sinbolizatzen duen lore bat aukeratu da. Loreak ederra izateko ostoz guztiak behar dituen bezalaxe, euskarak ere denon laguntza eta lana behar du aurrera egiteko.

*Euskara hitzarmeneko teknikaria



Elizondo kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 79 15 99

ESKORIATZA

① Argibideak parke eolikoaz

Eskoriatzako Udalak zenbait arrazoibide aurkeztu ditu Elgeako parke eolikoaren egiteko proiektuaren kontra. Udalaren arabera, hainbat gauza argitu behar dira oraindik proiektuan, hala nola, Eskoriatza eta Barrundiaren arteko muga edo parke eolikoaren eragina ingurugiroan. Horrez gain, parkearen lanen jarraipena egin nahi du Eskoriatzako Udalak.

OÑATI

② Hiru tenpluen ibilbidea

Loiolako santutegia, Antzinako basiliza eta Arantzazuko santutegia Gipuzkoako ibilbide turistiko berriaren punturik garrantzitsuenak dira. Joan den asteartean aurkeztu zen ibilbidea Zumarragako Antzinako beselizan. Ekitaldian, Guillermo Etxenike Ekonomia eta Turismo departamentuko Foru diputatua, Javier Blanco Turismo sailburuordea eta Roman Sodupe diputatua nagusia izan ziren, besteak beste. Proiektuaren ardatza



hiru tenpluak dira. Deba Garaia, Urola Garaia eta Urola Erdiko turismoa, kultura eta ekonomia bultzatuko dira, Lourdesen, Saint-Michelen eta Fatiman bezala. Gipuzkoako ibilbideak Europako turistak erakarri nahi ditu.

ELGETA

③ Goibekokalek hiru urte

Elgetako *Goibekokale* aldiak hiru urte bete ditu. Lortutako marka ospatzeko, —33 zenbaki kaleratuta dagoene-

ko— Niko Etxart eta Dominique Etxarten musika emanaldia eta sekulako afaria antolatuta zuten. Goibekokalek Elgetako berriak jasotzen ditu, hileror.

BERGARA

④ Aitor Zabaleta irabazle

Aitor Zabaleta bergararra Arrateko Igoeraren XXX. edizioaren irabazlea izan zen joan den igandean. Bi ehuneneko abantaila atera zion bakarrik Andrés Vilariñori. Zabaletak 2 ordu 31 minutu eta 61 segunduko denbora egin zuen. Arrateko maldetan bildutako 7.000 ikusleek egun ederra bizi izan zuten.

ANTZUOLA

⑤ Gasolioa errekarra

Astearte gauean 1.000 litro gasolio isuri ziren Antzuolako errekarra. Dirudienez, Elay enpresa antzuolarrari hodiren bat matxuratu eta gasolioak ihes egin zuen. Gasolioaren eraginez izugarritzko usain txarra hedatu zen herrian.

**TOLDOS
LECE C/B**

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

**BAZTER-ALDE
J A T E T X E A**

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58

Jaiotzak

- Julen Varela Gonzalez. Mar-
txoaren 26an.
- Jon Bernal Etxaniz. 26an.
- Ane Otxandiano Etxagibel.
28an.
- Asier Garcia Penas. Apiri-
laren 4an.
- Asier Valenti Vinagre. 6an.
- Ander Gonzalez Perez de
Albeniz. 9an.
- Kepa Urzelai Vicente. 11n.
- Beñat Pie de Hierro Cibe-
ira. 14an.

Ezkontzak

- Jose Migel Sanz Barcena
eta Maria Jesus Zubizarre-
ta Zabala. Zibilez. Apirilaren
4an.
- Jesus Mari Perez Usabiaga
eta Mari Jose Moreno Raba-
nal. Zibilez. 4an.
- Pedro Mari Urteaga Elko-
roribe eta Mari Karmen
Otxandiano Arana. Elizaz.
18an.
- Juan Carlos Rivero Gonza-
lez eta Aranzazu Badiola
Bermudez. Elizaz. 18an.
- Oscar Cadavia Perez eta
Natalia Da Cunha Cabelei-
ra. Zibilez. 18an.

Hildakoak

- Sabina Bolinaga Uribe. 90
urte. Apirilaren 8an.
- Felix Zabalo Uribesalgo. 84
urte. 10ean.
- Luis Orobengoa Biteri. Api-
rilaren 18an. 73 urte.

Postako langileen greba asteazkenean

Postako langileek burrukan segitzen dute Madrilgo gobernuak ezarri nahi duen posta legearen kontra. Hil honetan zehar hiru orduko lanuzteak egin dituzte. Langileen erantzuna ia-ia erabatekoa izan da. Miguel Aibar, Arrasateko Postako langilea pozik azaldu da orain arte egindako mobilizazioekin "sindikatu guztiak gurekin daude eta langileen %80 irten da agerraldietara. Badirudi maiatzean bilera bat egingo dela sindikatuekin, arazoari irtenbide bat bilatze-ko".

Madrilgo gobernuak ezarri nahi duen posta legea, zerbitzuaren pribatizazioa ekarriko duela uste dute postako langileek. Hauen bozerama-



Posta legearekin zerbitzuak murriztuko ote diren beldur dira langileak.

leek diotenez, pribatizazioarekin langile asko kalean gera liteke eta gainera, posta unitertsala, hau da, herri eta base-
rri guztietara heltzen dena, pikutara joan liteke, zerbitzua

defizitarioa delako.

Datorren astelehenean eta asteartean postetxea hiru orduz egongo da itxita. Asteazkenean, berriz, greba orokorra egingo dute langileek.

HBk frontoiko proiektuaren adjudikazioa errekurritu egin du.

Herri Batasunak Ferixaleku-ko pilotalekuaren proiektuaren adjudikazioa errekurritu egin du. Alderdi abertzalearen ustez, irregulartasunak izan ziren proiektuaren adjudikazioan. Horregatik, gora jo eta epaitegiak proiektua atzera egin dezala eskatu du. Gobernu batzordeak LKSri adjudikatu zion proiektua 8.670.000 pezetatan. Herri

Batasunak salatu egin du aurretik alderdi politiko eta herri-ko kirol erakundeen artean adostutako proiektua alde batera utzi izana eta esan du proiektu berri horren adjudikazioa ezkutuan egin dela.

Pilotalekuaren proiektuaren edukiarekin ere ez dago ados HB. Oraingo proiektua ehun milioi pta. merkeagoa izan arren, aurrekoak aurrei-

kusten zituen instalazio guztiak ez dira egingo. Orain, epaia-
ren sententziari itxaron behar pilotalekuaren kontuarekin zer gertatuko den ikusteko.

Bestalde, beste bi erabaki hartu ditu udalak pilotalekuaren inguruan. Euroestudios enpresak pilotalekuaren ikerketa geoteknikoa egingo du eta proiektua jendearen aurrean aurkeztuko da.



Parisera Ibai-Arterekin

Ibai-Artek antolatutako zozketaren irabazlea Oscar Gonzalez gazte arrasatearra da. Zerbaki saritua 12.286a izan da eta LORE lurrindegiko langileek oparitu zioten Oscarri. Rosarito Zeziagak eman zizkion hegazkinetako txartelak joan den asteazkenean. Pozik hartu zituen Oscarrek, bai-

na bera ez da Parisera joango. Lanpetuta dabilela eta, aitari emango dizkio hegazkinetako txartelak. Maiatzaren Leheneko zubia Parisen pasatuko dute bi lagunek. Eiffel dorrean bazkaldu edo Senatik txalupan ibiltzeko aukera izango dute. Ibai-Artek ordainduko ditu gastuak

Mendizaleak eta ekologistak Elgeako parke eolikoaren kontra

Deba bailarako mendizale elkarteak, Euskal Mendi Federakundea eta EKI eta Eguzki taldeak, Elgeako parke eolikoaren kontra azaldu dira, ingurugiroan eragin ditzakeen kalte itzuliezinak direla eta. Talde hauen guztien ordezkariak, interes ekonomikoak ekologikoen gaintetik ipini direla salatu zuten joan den asteartean Arrasaten egindako prentsaurrean. Are gehiago: Iberdrolaren errentagarritasun ekonomikoari baino ez zaiola begiratu esan zuten. AHTren Aurkako Asanbladaren ordezkaria den Urtzi Mendizabalen esanetan, "haizerrotek gutxitu egin beharko lukete nuklearra bezalako energia kutsatzaileen suminstroa. Bada, hau ez da inondik inora planteatu, baina ez da harritzekoa: haizerrotak egiten dituen enpresa nagusia, Iberdrola, aldi berean energia nuklearraren sortzailea da eta".

INGURUGIROA INDUSTRIALIZATU

Besaide Mendizale elkarte-ko ordezkariak parke eolikoak mendia industrializatuko duela esan zuten. Lehen aldi batean 40 haizerrota ezarri nahi dira Mugarri-luzetik Mugarrihandiraino. Bakoi-tzak, 60 metroko altuera du eta hiru beso 20 metrokoak. Arkoelogo batzuek dagoneko Brontze Aroko bi megalitok izan dezaketen kaltea salatu dute.

Bigarren aldi batean 10 km. baino gehiagoko luzera hartuko luke parkeak. Prentsaurrean aurrean esan zuten, abereetan, landareetan, lur-



Interes ekonomikoak ekologikoen gaintetik ipini direla salatu dute prentsaren aurrean.

zoruan eta paisajearen aldaketa handia eragingo du. Euskal Mendi Federakundeko ordezkariak hegaztiak sufrituko duten arriskua azpimarratu zuten. "Urkulun Gipuzkoako ur hegaztien koloniarik garrantzitsuen dago: ubarroiak, aha-teak, bertxunak... Haitzetan, belatz gorria, belatz txuria, zauriak eta beste hainbat

hegazti dabilta. Gure leku ederrenetarikoa bat galtzeko arriskua dugu, ia sinbolikoa den energia kopurua lortu ahal izateko".

MENDI IBILALDIA IGANDEAN

Elgeako parke eolikoaren proiektua berriro ere aztertzea eskatu dute mendizaleek

eta ekologistek. Izan ere, proiektuan gizartearen partaidetza saihestu dela salatu baitute. Guztion iritzia jasoko duen proiektu berria egitea eskatu dute. Igande honetan, apirilak 26, mendi ibilaldia egingo dute parke eolikoa non kokatuko den ikusteko. Arrasaten Arbolapetatik irtengo dira, goizeko 08:15etan.

Dirulaguntzak errotuluak euskaraz jartzeagatik

Arrasateko Udalak ahalegin berezia egin nahi du merkatariek euskara gehiago erabil dezaten. Oraingoz, milioi erdi pezeta banatuko du udalak establezimenduetako errotuluak euskaraz jarri nahi dituzten merkatarien artean. Horrelako ekimenak bultzatuz, euskaraz bizitzeko aukera gehiago eman nahi ditu udalak.

Taberna, bulego edo

denda duenak laguntza hau eska dezake udaletxean. Errotuluak euskara hutsean jarri nahi dituenari udalak kostoaren erdia emango dio, baina gehienez 50.000 pta emango dituela kontuan hartuta. Errotulu elebiduentzat kostoaren %10 ordainduko du eta gehienez 10.000 pta. Saltokietan erabiltzen diren fakturak, albaranak edo txartelak euska-

ratzeko ere, dirulaguntza eskainiko du udalak. Kostoaren erdia hartuko luke bere gain, baina gehienez 20.000 pta ordainduz.

Establezimendu bat zabaldu nahi duten guztiek edo errotulu berriak jartzeko asmotan dabiltzanek aukera polita dute orain euskararen alde egiteko. Udaletxera joan besterik ez dago diru laguntza eskatzera.

astea bi hitzetan

■ Gazte bat istripuz hil zen

Arnaldo Roman, 22 urteko arrasatearra astelehen goizean hil zen, igande iluntzean izandako istripuaren ondorioz. Gaueko 21:15ak aldera, Aretxabaletarantz zihoan bera bakarrik Peugeot 205 zuri batean. Mugarriko bidegurutzera pasatu eta gero, ehun bat metrora, autoa errepidetik irten zen oraindik ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Gaztea autoaren azpian geratu zen harrapatuta. Suhiltzaileek atera behar izan zuten gaztea auto azpitik. Berehala Bilboko Gurutzetako ospitalera eraman zuten anbulantzian, baina goizaldean hil zen, zauri larrien ondorioz.

■ Liburuaren eguna

Atzo izan zen liburuaren eguna. Hori dela eta, Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu aste osoan zehar. Astelehenean liburu hondatuen feria jarri zuten Monterronen. Bazkide bakoitzak bi liburu eskura zezakeen, liburutegiko txartela erakutsiz gero. Biharene liburuak hartzeko aukera izango da. Asteazkenean Ibon Sarasolak "Euskara Batuaren Ajeak" liburuaren inguruan hitz egin zuen. Gaur "Retrato de una dama" filma izango da ikusgai Monterronen, arratsaldeko 7etan.

■ Aita Mennin jaialdia

Aita Menni ospitalean ekitaldiz betetako kultura egi-

tarauari eman zizaien hasiera joan den astelehenean. Musika, ikusentzunezko emanaldiak, pailazoak, antzerkia, dantza eta erakusketak izango dira maiatzaren 9a arte. Ekitaldi guztietan sarrera librekoa izango da.

■ Osasun jardunaldiak

Eroskik antolatuta, osasunaren inguruko hitzaldiak izan ziren astelehenean ostegunera. Osasun arloko espezialistek hartu zuten parte jardunaldietan eta gaurkotatzen handiko gaiak izan zituzten hizpide. Alzheimer, anorexia eta bulimia, osteoporosis eta elikaduraren inguruan hitzegin zuten Monterronen.



MIKEL OTXOARI OMENALDIA

Bonba Taldiaren aurkezpena denbora luzaroan gogoratuko da. Jendetza izugarria bildu zen herriko plazan Arrasatera etorritako Realeko futbolariak ikustera. Ekitaldiko momenturik politena Mikel Otxoari egindako omenaldia izan zen. Realeko jokalariek eta Igor Arenaza Eibarreko jokalaria opari sorta ederra eman zioten Mikeli. Dena den, oparirik politena plazan bildutako jendearen txaloak izan ziren.

“Azken lau urteotan (Eusko Ikaskuntzaren) aurrekontua ia hirukoiztera iritsi gara. Gaur egun 250 milioi pta.koa da. Diru horren %40

Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministeriotik datorkigu. Beste zati handi bat autofinantziazioari dagokio. Gainerakoa Eusko Jaurlaritzak eta diputazioek jartzen dute. Orain zenbait urte diru arazo larriak izan genituen, baina orain eroso gabilta. Kontua da gure gastu finkoak aurrekontuaren %15 baino ez direla. Horri esker, diruaren %85 ikerkuntzari eskaini diezaiokegu. Errentagarritasun handiko ikerkuntza erakunde gara”.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

El Mundo

1998ko apirilaren 10ean

“Gure kalkuluak betetzen badira, 2005. urtean 100.000

bisitari jasota, (Oñatiko) Arrikruz haitzuloak hogeimil milioi pta.ko diru irabaziaz emango lituzke sarreretatik”.

AITOR OROBENGOA

Kontzejupetik

1998ko apirila

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostek
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz
 Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

AEROBIC

Goizez eta arratsaldez
 Ikasiak eta hasi berriak

KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)
 Gaztetxoak (10 eta 13 urte)
 Helduak

GIMNASTIKA

3.adineko mantenimendua.
 Goizez eta arratsaldez

SAUNA

SOLARIUM

MASAJEA

- Osteopatia
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasajea
- Kirol masajea
- Ziatikak

MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Fitness
- Kirol prestakuntza
- Gaiberritzea (errehabilitazioa)

SQUASH



Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31



ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



Bonba taldekoen zoramena aurpegietan eta Realaren nagusitasuna markagailuan: 1-3 irabazi zion talde donostiarrak Compostelari Aste Santuko norgehiagokan. Bonba taldekoek partidua ikusi eta Pontevedrako Dena herrian

ostatua hartu zuten oporrak aprobetxatuta. Pozez gainezka etorri ziren arrasatearrak Galiziatik, baina orain, urduritasunari eutsi behar. Finago ibili beharko dira Kraussen mutilak Txapeldunen ligara joan ahal izateko.

3 HAUNDIXEK EGUNETAN LEA ETA APERRI MEMORIALA



Apirilak 30

19:00etan ongietorria AEDren Garaiko aterpetxean.
Iluntzean: Txan magoa.

Malatzak 1

Egunean zehar ibilaldia: ZALDUONDO-AIZKORRI-LEINTZ GATZAGA

Iluntzean: eztabaida. "Euskara-elkarteetako gazte-taldeen partehartzea".

Malatzak 2

Egunean zehar ibilaldia: LEINTZ GATZAGA-ANBOTO-URKIOLA
Iluntzean: Mikel Urdangarin bakarlarria.

Malatzak 3

Egunean zehar ibilaldia: URKIOLA-GORBEA-MURUA

IZEN EMATEA: Apirilaren 20tik 27ra AEDn (Tel: 71 21 17)

MATRIKULA: 4.500 pta. Arrasateko gazteentzat (4.000 pta. AEDko bazkideentzat)

IRTEERA LEKUA: Monterron Jauregia 18:30etan






Aparicio Albes eta Segunda Carmona apirilaren 18 batean ezkondu ziren, orain 50 urte, Arrasateko parrokian.

Elkarrekin egindako bizitzak eman dien poztasunak ospatzeko, bazkaria egin zuten familiarekin. Iloben eta



Puri, Mari Karmen eta Jose Luis seme-alaben partetik, zorionak! Eta urte askotarako, bikote!



Yves Junqua eta Nicolas Joxe Arte Telebistako erreportariak dira. Egun bat eta erdi igaro dute Arrasaten, ATBri buruzko erreportajea egiten. Izan ere, Europako herri telebisten inguruko erreportajea ari baitira

prestatzen. Datorren astean emango da, asteazken eta ostirala bitartean, Arte Telebistan, arratsaldean. Antena parabolikoa behar izaten da ikusteko. Arte Telebistak frantsesez eta alemanez egiten du lan.

BASILI LARRAÑAGA

Basili Larrañaga realzale amorratua da. Anoetara joan ez, baina telebistan ikusten ditu Realaren partida guztiak. Jokalari batzuk Arrasaten izan zirela eta, ez zuen aukera galdu haien ondoan erretratu polita ateratzeko. Zorionak amama!



GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

UGARTE
Industria
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Faxa: 793412

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

Euskararen aldeko hitzarmena



Deba Garaia Beti Prest elkarteak ere sinatu du Euskararen Aldeko Hitzarmena. Argazkian, M. Arrieta, J.M. Loiti, J. Mendizabal eta A. Lasa.

Edozein begirale harritzeko moduko hitzarmena da hau. Izan ere, Arrasateren tamainako herri batean, zaila baita arlo desberdinetako 106 erakunde batzea euskara bultzatzeko helburuaren atzean. Gainera, sinatu duten guztiek beren borondatez egin dute.

Jatorrizko hitzarmena 1990ean sinatu zen. Harrezkero, hitzarmenak berak ere gorabeherak izan ditu: hitzarmenaren jarraipenaz ardura duen teknikaria sei aldiz aldatu da; hasierako helburuak orokorragiak ziren, gogoan izan barik erakunde batzuen

Apirilaren hasieran Arrasateko hamar erakundek Euskararen Aldeko Hitzarmena sinatu zuten. Kontuan izanda aurretik bazeudela beste 96 erakunde sinatuta zutela, guztira 106 erakunde dira hitzarmenean sartuta daudenak. Batzuek 1990ean sinatu zuten hitzarmena, besteek 1993an eta azkenek orain. Guztiek borondatezko konpromezu bat hartu dute: euren arteko harremanak euskaraz egitea. Eskarmentuak eta metodologia berriek irakatsitakoari esker, konpromezu hori zorrotzago beteko da hemendik aurrera.

eta besteen egoera ez zela berdina. Honek hitzarmena apur bat makaltzea ekarri zuen

Hitzarmena sinaturik zuten 96 erakundeetatik, 30 batek eguneroko jardura ia euskaraz burutzen dute; beste 50 bat erdibidean daude: neurri batean betetzen dute hitzarmena; azkenik 15 inguru dira pattal

samar eta batzuetan ezinean dabilzanak: ia-ia gaztelaniaz egiten dute lan.

NORABIDE BERRIA

Hitzarmena berriz ere indartze aldera, hainbat erabaki hartu ziren Arrasateko Udaleko Euskara batzordean. Alde bateatik, udal euskaltegikoa izan-

go zen teknikaria hartzea; bestetik, plangintza berria osatzea eta, azkenik, hitzarmenaren irudia ere berritzea.

Joan den irailean Aintzane Lasa hasi zen teknikari lanetan. Beasaindar hau Aretxabaletan bizi da. Zazpi urtez udal euskaltegiko irakaslea izan eta gero, Euskara zerbitzuaren hasi da: "aldaketa itzela izan da. Lana egiteko modua ere oso desberdina da. Zailena hasierako hileak izan ziren, hitzarmenaren nondik norakoak zehaztu artekoak", dio Aintzane.

Horixe izan da, hain zuzen, Aintzanearen lanik behinena orain arte: hitzarmenaren non-

Planak norabide berria hartu du

Ehun eta sei erakunde hitzarmenean

Hezkuntza

- Almen Ikastola
- Arrasateko Institutua
- Arrasate Logopedia Zentrua
- Athlon
- Bastida Akademia
- Erdu Euskaltegia
- Erguin Eskola Publikoa
- Mondragon Eskola Politeknikoa
- Eskoriatzako Irakasle Eskola
- Gabinetek
- Psikopedagogikoa
- Helduen Heziketa Iraunkorra
- Hezibide Elkartea
- La Merced Ikastetxea
- Langai Elkartea
- Musakola Eskola Publikoa
- San Frantzisko Xabier Ikastola
- San Viator Ikastola
- Umezaintza Haur Eskola

Zerbitzu enpresak

- Anboto Inmobiliaria
- AZK Taldea
- Belaxe Itzulpen Zerbitzua
- Deba Garaia Inmobiliaria
- Dragoi Bideo Produkzioak

- Euskoletter
- Gipuzkoako Aholkulariak
- Ikusentzun
- Lagun Aro Aseguruak
- Leniz Autoeskola
- Sortu Informatika
- Urrats Aholkularitza
- Zarugalde Albaiteretzako Klinika

Industria enpresak

- Alejandro Altuna
- Asmobi
- Galartza Kontenedoreak
- Gertu Inprimategia
- K-3 Inprimategia
- Mugarri Automobilak

Merkataritza

- Arrasate Kirolak
- Arrasate Zoo
- Elkorro Elektrotresnak
- Elisabeth Kirolak
- Hotel Arrasate
- Iker Altzariak
- Jose Aranzabal Etxeko Tresnak
- Kataide Jatetxea
- Loramendi Kirolak
- Eroski Arrasate
- Eya Sukaldeak
- Zabaleta Liburudenda

Kultura elkarteak

- AED Elkartea

- Arrasateko Erraldioen eta Kilikien Konpartsa
- Arrasate Komunikabideak
- Arrasateko Gaiteroak
- Arrasateko Txalaparta Taldea
- Arrasateko Yoga Naturismoa
- ASA Taldea
- Familia eta Gizarte Heziketarako Zentrua
- Gizaizpi Alai Aisialdi Taldea
- Goikobalu Abesbatza
- Kapirixo
- Lore Gazteak Dantza Taldea
- Leintz Zeramika Eskola
- Maritxu Kajoi Batzordea
- Orkatz Skaut Taldea
- Tailaginen Elkartea
- Trikitixa Eskola
- Txatxilipurdi Haur eta Gazte Ekintza Taldea
- Txikitxu-Arrostaitz Dantza Taldea

Kirol elkarteak

- Arrasateko Txirrindulari Elkartea
- Besaide Mendizale Elkartea
- Deba Garaiko Zikloturisten Elkartea
- Dorletako Ama

- Txirrindulari Eskola
- Mondragon Futbol Taldea
- Errugbi Taldea

Alderdiak & sindikatuak

- Arrasateko EA
- Arrasateko EAJ
- Arrasateko ELA
- Arrasateko HB
- Deba Garaiko CCOO
- Gipuzkoako EHNE

Erakunde publikoak

- Arrasateko Udala
- Aukea
- DG Mendi Nekazaritza Elkartea
- DG Udal Elkartea
- Iturbide Egoitza

Aurrezki kutxak

- Euskadiko Kutxa
- Kutxa

Beste batzuk

- Arrasateko Gurutze Gorria
- Arrasateko Hirugarren Mundu Taldea
- Deba Garaiko Dya
- Elkarri
- Frantziskotarrak
- Gaztetxea-Agako
- San Joan Bataiatzailea Parrokia
- Askagintza



dik norakoak finkatzea. Iku-sita orain arte izan diren oztopoak, hobekuntza mailakatua izeneko plana prestatu du. Elkarte bakoitzaren egoera hartuko da abiapuntu, hortik aurrera neurritza egindako planak prestatzeko. Sistema honi jarraituz, 23 erakunde aukeratu dira. Hauetatik zazpi, hitzarmenean sartu berri diren

Aurrerantzean, elkarte bakoitzaren egoera hartuko da abiapuntu, hortik aurrera neurritza egindako planak prestatzeko

erakundeak dira. Bakoitzarekin helburu zehatzak jarriko dira, erakunde bakoitzaren egoeraren arabera.

Eta gainerako erakundeekin zer? Orain arte bezala, bisitak egingo zaizkie, hizkuntza aholkularitza eskainiko zaie eta sektoreka jarritako helburuak bete ditzatela eskatuko zaie.

Elkoro: Zaldispeko ganbaratik kale nagusira

Etxean telebistarako antena, atezain automatikoa edo satellite bidezko telebista jarri nahi duenak aukera handiak ditu Elkoro bati edo besteari deitzeko, izan ere Elkorotarrak izango baitira gure artean langintza horietan urte gehien daramatenak.

Dagoeneko 53 urte bete dira Jesus eta Faustino Elkoro elektrizistak Union Cerrajeru utzi eta beren kontura jarri zirenetik. Gazteak ziren eta ordurako makina bat konponketa zituzten eginda Zaldispe baserriko ganbaran. Mondra futbol taldeko aldagelak izan zirenean toki erosi zuten Maala errabalean, denda hantxe jartzeko. Santo Tomas egun batean ireki zuten, sekulako arrakastarekin: eskarparetan fluor-argi bat jarri zuten. Jendea erruz pasatu omen zen, argi berri hark miresturik.

Elkorotarren emazteek dendan lana egiten zuten bitartean, senarrek konponketa lanetan ziharduten. Instalazioak edo mantenimendu lanak izaten ziren gehienak.

BI ELKORO

Urteak joan ahala, ostera, aldaketa handiak izan dira. Mer-



Elkorotarrak: bi belaunaldi jo eta ke lanean.

katua erabat aldatu da. "Guk Industria Maisutza ikasi genueneko gauza asko ezin dira gaur egun aurkitu: irrati lanparaduna, zuri-beltzeko telebista, etab."

Elkorotarrak ere banatu egin ziren orain hogeai urte. Agustín eta Jesus Mari anaiak Jesus osabarekin jarri ziren lanean, sozietate anonimo gisa. Olarte kalean dute denda eta Maala errabalean lantegia.

Faustino eta bere emaztea, berriz, Juan Luis seme gaztearekin joan ziren. Hauek sozietate mugatu moduan eratu ziren. Gaur egun Legarren eta Olarte kalean dituzte dendak.

Ettxeko tresna elektronikoen alorrean lehia handia denez, bakoitzak kide handiagoak bilatu behar izan ditu. Horrela, batzuek Milar katea handiarekin egin dute bat eta besteek Expert izena duena-

rekin. Hauen bitartez, produktua askoz ere merkeago erosi ahal dituzte. Etxe handi hauek, bestalde, lagundu egiten diete, informatika programa bereziak sortuz, enpresako kudeaketa eramaten.

Banaketak banaketa, Elkorotarrak ondo konpontzen dira beren artean. Batzuk zein besteak bat datoz lehiakor izateko hiru gauza behar direla esatean: prezio onak (horretarako elkartu ziren Milar eta Expertekin), eskaintza zabalera erakuslehoi edo batekin eta zerbitzua. Jesus Marik dioen moduan, "salmenta ondorengo zerbitzuak bereizten gaitu handiengandik. Prezioetan ez dago alderik, baina gu gertuago gaude eta zerbitzu hobea eskaintzen dugu".

MINTEGI EMANKORRA

Mende erdi honetan jende askok egin du lan Elkorotarrekin. Askorentzat eskola izan da. Haiekin ibilitako askok beren kontura jarri ziren gero han-hemenka: Aranzabal eta Eya Arrasaten; Sagasta eta Arkauz Aretxabaletan; Faustino Legazpia Eskoriaztan; Larramendi anaiak Azkoitian; eta Irulegi Lasarsten. Eskola emankorra.

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

green ginger

OLEAR HEAD

DEMON BARBER



**Apirilak 25, larunbata
22:30etan**


Asteburu komikoa

Sarrera: 1.000 pta.

Gazte Txartelarekin: 800 Pta.

Bi emanaldietarako abonoa: 1.500 Pta.

AMAIA ANTZOKIAN



**Apirilak 26, igandea
19:30etan**

**LIEO
BASSI**



ARRASATEKO UDALA



Urez gainezka Iturripen

Aste Santuan ez zuten oporrik izan. Horrez gain, potzu artean jokatu behar izan zuten Uribeko futbito txapelketan ari diren taldeek. Larunbat santuan egin zuen euriteak ia-ia uholdeak eragin zituen jolastokian.

Laburrak

■ GOL UGARI

Uriben jokatu ziren partidetan ezberdintasun handiak izan ziren markagailuetan. 13 gol lortu zituen Racing Molotovek Itxaro Pena Ainarexiaren aurka jokaturako partidari. Driblingek, berriz, 12 sartu zizkion Milan Tokaori. Munar Txikikoek, oster, 10 eta 3

egin zuten Pening Lapsus taldearen aurka jokaturako partidari.

■ LEHENENGO TOKIETAN

Uribeko futbito txapelketako zazpigarren jardunaldia jokatuko da asteburu honetan. Lehenengo tokietan doazen taldeak nahiko berdinduak

dabilta. Driblingek eta Doble Cerok hamabina puntu dituzte eta Kamasutra eta P 3000, hamarna berdinduta daude. Hala ere, ezin da esan lau talde hauek ezer erabakita dutenik, atzetik dituzten taldeek oso gertutik jarraitzen diete eta. A taldean, Elvis Team-ek eta Komando Alpargat-ek, biga-

rren eta hirugarren lekuan hurrenez hurren, hamarna puntu dituzte. D taldeko Munar Txikik eta Borrock & Roll-ek ere, puntu berdinak dituzte sailkapenean; bai eta B taldeko Spoting-ek eta E taldeko Argi Plastic-ek ere. Bi hauek sailkapeneko bigarren tokian daude.

CARMEN

Ileapaindegiak zerbitzu berria eskaintzen dizu:

SOLARIUMA



28 hodi eta aurpegirako 3 plaka ditu

Epe laburragoan
beltzaranago
jar zaitezke!
Ez ezazu
denborarik gal!

ESKAITZA BEREZIA:

Solariumean 11 saio (10 saio +1 dohain): 8.000 pta.

Ferrerias kalea, 50 behea • Tel: 79 03 63

Sailkapenak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Ald. | Aurk. | Guzt. |
| Sokoakoak | 6 | 6 | 0 | 0 | 35 | 13 | 12 |
| Naranja Mecanica | 6 | 5 | 1 | 0 | 36 | 21 | 11 |
| Bar Nuevo | 6 | 3 | 0 | 3 | 36 | 30 | 6 |
| Aurrera Bolie | 6 | 2 | 1 | 3 | 27 | 21 | 5 |
| Jotakabau | 6 | 1 | 3 | 2 | 15 | 22 | 5 |
| Insert Coin | 6 | 2 | 0 | 4 | 25 | 28 | 4 |
| Zotz | 6 | 1 | 1 | 4 | 20 | 29 | 3 |
| Ke Oxtias!!! | 6 | 1 | 0 | 5 | 15 | 45 | 2 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Ald. | Aurk. | Guzt. |
| Argi Ibili | 6 | 6 | 0 | 0 | 46 | 19 | 12 |
| Pepelus | 6 | 3 | 2 | 1 | 32 | 24 | 8 |
| Ac Surkos | 6 | 4 | 0 | 2 | 34 | 25 | 8 |
| Koka Juniors | 6 | 3 | 2 | 1 | 41 | 17 | 8 |
| Betayer | 6 | 2 | 1 | 3 | 27 | 31 | 5 |
| Lauterbrunnen | 6 | 2 | 1 | 3 | 27 | 36 | 5 |
| Jako al Rey | 6 | 1 | 0 | 5 | 15 | 36 | 2 |
| RR Tamagotxi | 6 | 0 | 0 | 6 | 15 | 49 | 0 |

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|--------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Ald. | Aurk. | Guzt. |
| Irati STS | 6 | 4 | 1 | 1 | 39 | 18 | 9 |
| Garaje Oscar | 6 | 4 | 1 | 1 | 26 | 19 | 9 |
| Fraguel Gol | 6 | 3 | 1 | 2 | 16 | 12 | 7 |
| KKJauri | 6 | 2 | 2 | 2 | 22 | 35 | 6 |
| Jey Holigans | 6 | 3 | 0 | 3 | 25 | 21 | 6 |
| Los Heredia | 6 | 2 | 2 | 2 | 16 | 17 | 6 |
| Da Iriztu | 6 | 1 | 1 | 4 | 17 | 31 | 3 |
| AT Celaya | 6 | 1 | 0 | 5 | 24 | 32 | 2 |

| E taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Ald. | Aurk. | Guzt. |
| Aldibi | 5 | 5 | 0 | 0 | 41 | 14 | 10 |
| Lorategi Potroak | 6 | 5 | 0 | 1 | 41 | 30 | 10 |
| Branka Taberna | 6 | 4 | 0 | 2 | 38 | 28 | 8 |
| Leya | 6 | 2 | 1 | 3 | 33 | 46 | 5 |
| Totem | 6 | 2 | 1 | 3 | 18 | 15 | 5 |
| Bar Estrella | 5 | 2 | 1 | 2 | 19 | 20 | 5 |
| DBK | 6 | 1 | 1 | 4 | 21 | 46 | 3 |
| Txeyenex | 6 | 0 | 0 | 6 | 12 | 24 | 0 |

Oporrak izan dituzte Zaldibarren

Joan den asteburuan, Aste Santua zela eta, ez zen Zaldibarko futbito txapelketako partidarik jokatu. Hori dela eta, sailkapenean taulak eta hurrengo partidak aurreko astean jaso genituen berberak dira.

Aste honetan emango diote segida aurtengo Zaldibarko futbito txapelketari.

Hurrengo partidak

Apirilak 25, larunbata

Zaldibar

| | |
|-------|-----------------------------|
| 08:50 | Aldibi-DKB |
| 10:00 | Los Heredia-At Celaya |
| 11:00 | Naranja Mecanica-Sokoakoak |
| 12:00 | Jey Holigans-Irati Sts |
| 13:00 | Bar Estrella-Branka Taberna |
| 14:00 | Jako al Rey-Pepelus |
| 15:00 | KKJauri-Garaje Oscar |
| 16:00 | Insert Coin-Ke Oxtias!!! |
| 17:00 | Zotz-Aurrera Bolie |
| 18:00 | Fragel Gol-Da Iriztu |
| 19:00 | Totem-Leya |

Apirilak 26, Igandea

Zaldibar

| | |
|-------|--------------------------|
| 09:50 | Ac Surkos-Lauterbrunnen |
| 11:00 | Bretayer-RR Tamagotxi |
| 12:00 | Argi Ibilii-Koka Juniors |
| 13:00 | Bar Nuevo-Jotakabau |

Uribe auzoa txapelketa

Hurrengo partidak

Apirilak 25, larunbata

Iturripe A

| | |
|-------|----------------------------------|
| 09:00 | Potosorri-Balon Rojo |
| 10:00 | P3000-Kalandrax |
| 11:00 | Mr Magoo-Xhaass |
| 12:00 | Argi Plastic-El milagro Bautista |
| 13:00 | Elvis Team-Komando Alpagat |
| 14:00 | Txotx-Decadencia |
| 15:00 | Babajana Secy-Rotor de Bolborado |
| 16:00 | Cartonajes Igamo-La Ostra Azul |
| 17:00 | Sporting de Tronpetas-Dribling |
| 18:00 | Kamasutra-Spoting |
| 19:00 | Medio Grano-Lontxo Taberna |

Iturripe B

| | |
|-------|--------------------------------------|
| 13:00 | Ac Massive-Itxaro Pena Ainarexia |
| 14:00 | Piernodoiuna Sathellites-Milan Tolao |
| 15:00 | Trotabares-DBK |
| 16:00 | Bortxitxak-Munar Txiki |
| 17:00 | Astoen Villa-Zigarrolako Mutilzarrak |
| 19:00 | Rex 22-Hilarion Jatetxea |

Emaitzak

A taldea

| |
|---|
| Babajan Sexy 4 - Elvis Team 5 |
| Bar Nuevo 14 - Roto Bolbogrado 1 |
| Sporting de Tronpetas 6 - Zigarrolako Mutilzarrak 3 |
| Milan Tokao 1 - Dribling 12 |
| Piernodoiuna Sathe. 4 - Trotabares 7 |
| DBK 3 - Komando Alpagat 6 |

B taldea

| |
|------------------------------------|
| Cartonajes Igamo 1 - Fraguel Gol 0 |
| Potosorri 4 - La Ostra Azul 5 |
| Mr Magoo 3 - Balon Rojo 6 |
| Medio Grano 3 - Xhaass... 9 |
| Kamasutra 1 - Lontxo Taberna 2 |
| Spoting1 - Leya TMET 0 |

D taldea

| |
|------------------------------------|
| Akta 0 - Txotx1 |
| Astoen Villa 0 - Doble Cero 8 |
| Rex 22 3 - Borrock & Roll 6 |
| Bortxitxak 6 - Hilarion Jatetxea 3 |
| Penering Lapsus 3 - Munar Txiki 10 |
| Blind 2 - Decadencia 6 |

E taldea

| |
|--|
| Argi Plastic 1 - Chuleton Rovers 0 |
| Felpudo Maldito 2 - Mil. Bautista 2 |
| Mendizabal P de P 4 - Kalandrax 3 |
| Ac Massive 1 - Alai Gozokiak 0 |
| Itxaro Pena Ain. 3 - Racing Molotov 13 |



Arrasate Kirolak Atletismo taldeko
korrikalaria

MAITANE ARIZMENDIARRIETA

300 m.ko lasterketetan gustura

- 300 m.ko lasterketetan 100m.tan baino hobeto aritzen zara?

- 100ekoetan ere aritu izan naiz, bai eta 60koetan pista estalian ere, baina nahiago dut 300 m.koan aritzea, 100ekoa motza egiten zait eta. 100ekoetan irteeretan azkarra izan behar duzu, bestela denbora dexente galtzen da eta; 300ekoan irteerak ez dauka horrenbesteko garrantzirik.

- Lasterketa luzeagoak egiteko asmorik bai?

- 400era hel naiteke, baina hortik aurrera ez; hala ere, krosak ere korritzen ditut noizean behin, batez ere 300ekoa prestatzeko. Erlebuka ibiltzea ere gustukoa dut, baina jende gutxi gara eta ezin dugu taldea osatu.

- Jendea ez da atletismoan aritzera animatzen?

- Mutilak bai, neskak oso gutxi. Beste taldeetan neskak izaten dira nagusi, baina Arrasaten ez da hori gertatzen, hemen bost baino ez gara, hiru kadete eta bi gazte.

Neskek animatu egin beharko lukete, baina etortzekotan, gogoz etor daitezela, bestela ezin da-eta ezer ere egin. Hala ere, oso ondo pasatzen dugu. Txandetan jardun nahi dugu, lasterketa horiek oso politak dira eta. Hor dago gainera talde lana.

- Nola uztartzen dituzu entrenamenduak eta ikasketak?


- Ondo ari naiz orain, ondo moldatzen naiz biekin; hala ere, noizean behin, azterketa garaian, utzi egiten ditut entrenamenduak, baina orokorrean gustora nabil.

- Probetan jarraitailerik izaten duzue?

- Gurasoak-eta etortzen dira, baina gehienetan taldekideok gara animatzen aritzen garenak.

- Datorren urteari begira?

- 400 m.ak korritzen hasiko naiz. Lasterketarik gogorrenetarikoa da, baina horrek ez nau arduratzen. Orain ondo nabil eta horrela segituz gero, ez dut uste txarrera egingo dudunik.



SASKIBALOIA Garaipena ez da nahikoa



68-54 irabazi zuen Arrasatek Ordiziako taldearen aurka. Joan den larunbatean jokatu zen norgehiagoka Iturripen. Gamarrak eta Dublanek ezin izan zuten partida jokatu, baina junior mailako jokalaria den Lazpiurrek bai. Arrasatearrek, partida irabazi arren, sailkapeneko azken tokian segitzen dute, 21 punturekin. Hurrengo partida larunbatean, hilak 25, jokatuko dute Indautxun, arratsaldeko 18:00etan.

ATLETISMOA Mendizorrotzatik Anoetara



Arrasate Kirolak Atletiko taldekoak Mendizorrotz izan ziren asteburuan VII.

Blanka Sarian. Oskar Gavilanekek lehen postua lortu zuen, kadete mailako pixu jaurtiketan 11'58 metroko jaurtiketa egin ostean. Mailu jaurtiketan, berriz, Aitor Urizar eta Unai Sarabia bigarren tokian gelditu ziren.

Kadete mailako 300 metroko lasterketan, Maitane Arizmendi Arrieta eta Ibai Jurado hirugarren izan ziren. Maitanek 45,95 egin zuen eta Ibaiek, berriz, 38,52. Mila metroko lasterketan Fernando Nogalesek hirugarren postua lortu zuen. Nogalesek 2,51,88tan egin zituen 1.000 metroak.

Denboraldiko 100 metroko lasterketan Mikel Apraiz eta Remi Diosdado izan ziren arrasatear onenak helmugan, 12,32 eta 12,15 markak egin zituzten hurrenez hurren.

Datorren asteburuan, Anoetara abiatuko da taldea, Gipuz-

koako taldekako txapelketara. Iaz laugarren izan ziren. Aurtun ere antzeko emaitzak lortzea espero dute.

FUTBOLA Liga amaitu da neskentzat



Ruben Rueda eta "Golo" izan ziren gogegileak Mondrak Zarautzen aurka jokatutako partidaren.

Bina amaitu zuten norgehiagoka eta datorren astean, Trintxerperen aurka arituko dira Atxabalpen, arratsaldeko 16:30etan.

Bestalde, Emakume Taldeak 1 eta 5 galdu zuen Sondika taldearen aurka. Ligako azken partida izan zen sondikarren aurka jokatu zutena. Neskak sailkapeneko zazpigarren lekuan gelditu dira. Hemendik aurrera kopako partidak jokatzekeo entrenatzen hasiko dira.

TXIRRINDULARITZA Atxa 14. Deban



Joan den astean Debaiko IV. Klasikoan izan ziren Dorleta Amako gazteak.

Asier Atxa 14. iritsi zen Debako helmugara eta Iban Belasco berriz, 49.. 180 txirrindulari izan ziren irteeran, baina horietako 91 baino ez ziren helmugara iritsi. Lehen urteko kadeteak larunbatean, apirilak 25, Ikaztegietara joango dira Herrigintza Elkartekeo Lehen Sarian parte hartzera goizeko 10:00etan aterako dira eta 45 kilometroko ibilbidea egin beharko dute helmugaratu aurretik.

Haurrak, berriz, Elgoibarren izango den lasterketara joango dira. Irteera arratsaldeko 16:30etan izango da.

Txirrindulariek gogor ekin diote denboraldiari

Granadako itzulian izan ziren Born-Jay taldekoak joan den asteburuan. Oskar Askasibar, David Montero, Jon Unamuno, David Sojo, Jon del Rio, Ruben Gonzalez eta Igor Aranburu izan ziren hantxe. Elite mailan aritzen diren txirrindulariek postu aipagarriak lortu zituzten bi etapatan. Oskar Askasibar elgetarra izan zen

taldeko onena: ostiraleko etapen 4.a izan zen eta igandean 5.a. Txirrindulariak astelehen arratsaldean iritsi ziren Arrasatera.

Taldekide gazteenak, bestalde, Gorlizen izan ziren. Ez zuten zorte bera izan, ordea eguraldi oso txarra egin zien eta. Ostegunetik Arabako Itzulian ari dira Born-Jay tal-

deko zazpi txirrindulari. Lehenengo egunean Gasteiz-Izarra etapa burutu zuten eta gaur Laudio-Oion ibilbidea egingo dute. Larunbatean Ribabellosatik aterako dira eta Langraitzerainoko ibilbidea egingo dute goizean. Arratsaldean Dulantzi-Agurain etapa egingo dute. Azkenengo egunean, Labastidatik

aterako dira Gasteizera iristeko berriz ere.

Arrasateko taldearekin batera, Frantzia, Alemania eta Portugalgo txirrindulariak ere arituko dira; bai eta Kaiku eta Iberdrolako taldeak ere. Ez da erraza izango itzulia, mendate dexente igo beharko dituzte eta. Hala ere, gogo handiz abiatu ziren gure mutilak.



Hemeretzi lagun ari dira Born-Jay taldean aurtengo denboraldian.

Kirolari beterranoei aurtengo AUKEA sariak

Enrike Kabiketa, Arrasate Kirolak Atletiko Taldea eta Justi Arenaza "La Vasquita" izan dira AUKEA sarien irabazleak. Urtero Arrasateko kirolarien lana eskertzeko eskaintzen diren sariak, asteazkenean banatu ziren udaletxeko Pleno Aretoan. AUKEAk hirurek urteetan zehar egin duten lana saritu nahi izan zuen.

Enrike Kabiketak, Euskadi eta Espainiako maratoi txapeldun izan zen iaz, beterranoen artean. Enrikek asteburu honetan bertan, Anoetan izango diren Taldekako Euskadiko Txapelketan parte hartuko du, 10 km.etan.

Hantxe izango da, Arrasate Kirolak Atletiko Taldea ere. Talde hau saritzea era-

baki du Kirol Taldeen Elkar-teak, atletismoaren inguruan egiten ari den lana dela eta. Atletiko Taldeak, 30 urtez atletismoan aritu zen Juventud Deportiva Mondragon taldearen lekukoa hartu zuen 1987an. Gaur egun, 63 federatu dira taldean, Gipuzkoan federatu gehien dituen zazpigarren taldea da. Honetaz gain, 15 gazte ere ari dira

taldean.

Bestalde, "La Vasquita" ezizenez ezaguna egin zen Justina Arenaza tenislariaren lana ere saritu nahi izan zuen AUKEAk. Justina, 13 urte zituela hasi zen raketarekin Madrilen. Kirol honetan hogeitaz aritu ondoren, utzi eta Arrasatera itzuli zen. Gaur egun 79 urte ditu Justinak.

NEKANE SAN MIGEL (EPAILEA)

“Besteak bezala tratatze

Orain 45 urte jaio zen arrasatear hau gura baino gehiago agertzen da komunikabideetan. Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen Zuzenbidea. Hamabost urte egin zituen abokatu lanetan. Galizian, Tolosan eta Bilbon egin du lan epaile gisa. Epaile egin zenetik, hauxe da eskaintzen duen bigarren elkarrizketa.

— Zuzenbide ikasketak egiten hasi zinenean pentsatu zenuen epaile izatera iritsiko zinela?

— Ez. Hiru urte lehenago esan izan balidate epaile izango nintzela, ezetz esango nukeen. Hala ere, epaile egiteko deialdietako bat egin zenean, orain zazpi urte, aldatzeko gogoia izan nuen. Nire lanaren beste ikuspegi bat izatea erabaki nuen. Zortea izan nuen eta lehiaketa gainditu.

— Nolako lanak egin zenuen abokatu gisa aritu zinen urteetan?

— Batez ere lan esparruko kasuak eta senar-emazteen arteko banaketak egin nituen. Horietaz gain, denetik apur bat. Lehen urteak abokatu moduan Eibarren egin nituen. 1985ean, ostera, Arrasatera etorri nintzen.

— Noiz itxi zenuen Erdiko kaleko bulegoa?

— Ez dut itxi. Beste batek egiten du lan hor. Niri dago-kidanez, inoiz nahi badut legetaritzara itzuli, hortxe izango dut tokia. Ez dakit zein lanetan erretiratuko naizen, aizu.

— Tolosan egin zenituen urte batzuk epaile gisa. Orain, berriz, Bilbon diharduzu. Oso desberdinak dira lanak?

— Bai. Alde batetik, Tolosan bi alor landu behar ziren: zibila eta instrukziokoa. Bilbon, berriz, instrukziokoa bakarrik tokatu zait. Bateko eta besteko arazoak ere, oso bestelakoak dira. Bilbon, adibidez, droga kontuak, lapurretak, diru kontuko auzi jartzeak eta arrazakeriak eragindako arazoak askoz ere gehiago dira. Lankarga, ordea, askoz ere handiagoa zen Tolosan.


— Badirudi auzitegiaren euskara arrotza dela.

— Bai. Arrotzagoa da beste esparruetan baino. Ez dakit zenbateraino duen eragina euskararen normalkuntza lortze aldera egiten ari garen ahaleginak. Euskararen kontra egiten dutenen artean denetik dago: batzuek arrazoi pertsonalengatik egiten dute; beste batzuek, ostera, ez. Hauen artean bada epaile, kazetari eta politiko multzo bat esaten duena euskararen normalkuntza defendatzen dugunok ezker

muturrekoak garena. Horrekin, noski, baliogabetu egin nahi da euskararen normalkuntza.

— Zer deritzozu Euskal Abokatuen Sindikatuak euskararen kontrakoen izenak markatzeko adierazi duen jarrerari?

— Hankasartze izugarria iruditu zait eta horrela esan nien eurei. Gogoan izanda zein egoeratan bizi garen, kontu handiz ibili behar gara horrelako gauzak azaltzeko orduan. Euskararen kontra daudenek horrelako hankasartzei heltzen diete beren jarraera zuritzeko. Horregatik, kontu handiz ibili beharra dago.



“Zinpeko epaiketen alde nago. Ona da jendeak parte hartzea ahalik eta gauza gehienetan. Hau da parte hartzeko beste modu bat, eta oso inportantea”

ditut ertzainak”

Egia da euskaldunak ez garela askotan errespetatuak izaten, baina ezin dugu txanpon berarekin erantzun. Ezin dugu pauso bat aurrera egin, ondoren horrelako baldareria dela bide, hamar atzera egiteko.

— **Hainbat abokatu euskaldun hasi dira interpretaritzaz zerbitzurik ez onartzen, epaiketa euskaraz egin nahi dutenean.**

— Lekukotasun moduan, berek ikusiko dute zer egiten duten, baina ez dakit norainoko eragina izango duen. Esaten da itzulpenak urratu egiten dituela prozesuaren zenbait oinarri. Hori egia izanik, gauden egoeran ez dago beste erremediorik. Ezin gara itzulpen hutsean geratu. Hala ere, ezin dugu aurrera egin istilu hauen bidez.

Bestetik, epaile asko ez dira konturatzen ikasketa gehienak euskara hutsean egin dituz-

ten abokatu gazteak irteten ari direla unibertsitatetik. Horregatik, ez badugu denon alde-rik ahalegin berezia egiten, nekez egingo dugu aurrera.

— **Zenbat epai eman dituzu euskaraz?**

— Uf!, ez dakit. Zibilak pare bat. Eta penalak hogeitabat. Autoak ere egin ditut batzuk. Normalean arazoak izaten dira, zeren eta kasurik gehienetan fiskalek ez baitute euskara jakiten eta itzultzaileak eskatzen baitituzte. Tolosan, adibidez, ez zidaten eragozpenik jartzen. Bilbon, berriz, bai.

— **Izar bilakatu diren epaileak ditugu gaur egun. Zeu ere nahiko ezagun egin zara. Hori oztopoa izan liteke justiziaren lanerako?**

— Nire kasuan, nire gogoren kontra irteten naiz. Hau-xe da epaile egin nintzenetik eman dudana bigarren elkar-riketa. Lehena *Euskaldunon Egunkariari* eman nion. Eta zuei herrikoak zaretelako eman dizuet. Orokorrean, ez zait gustatzen prentsak duen jarra-epaitegietan gertatzen diren gauzekin. Informazioa manipulatzen egiten dute. Epaile asko oso presiopean ari dira.

— **Ertzaintzak arazoak izan ditu zurekin. Zer dela eta?**

— Nik dakidala, ez. Beste herritarrek bezala tratatu izan ditut ertzainak eta horrela tratatuko ditut aurrerantzean ere. Pertsonen berdintasunean sinesten dut.

— **Nola ikusten duzu zinpeko epaiketen sistema berria?**

— Aldekoa naiz. Ona da jendeak parte hartzea ahalik eta gauza gehienetan. Hau da parte hartzeko beste modu bat, eta oso inportantea.

— **Sarritan emakumeen kontrako epai asko ateratzen dira.**

— Oso zaila da orokorrean hitz egitea. Kasuz kasu begiratu beharko litzateke. Kontuan hartu beharko lirateke legearen egoera, gizartearen jarrera eta beste hainbat faktore.

“Egia da euskaldunak ez garela askotan errespetatuak izaten, baina ezin dugu txanpon berarekin erantzun”

UDAKO IKASTARROAK INGALATERRAN. UZTAILA-98

12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat

Programa:

- 4 asteko egonaldia.
- Hango familiarrean egonaldia eta ostatua, mantenu osoarekin.
- Eskolak goizez izango dira tokiko (sorterriko) irakasleekin.
- Euskara eta gaztelania dakiten **Idiomasterreko** begiraleak eta koordinatzaile ingelesa hantxe izango dituzu.
- Kultura ekintzak eta aisialdikoak. Arratsalde bisitak. Londresekoa barne.
- Londrerako bidaia eta egonaldi guztian zehar egingo diren lekualdatzeak. prezioaren barne.
- Bidaia aseguruua.



IDIOMASTER
LEGAZPI

Gutxi-gorabeherako prezioa: 225.000 pta.
(garraioaren arauera aldatuko litzateke)

Berri gehiagorako, zatoz edo dei egin **Idiomaster Legazpi** akademiara

Patrizio Etxeberria, 7 • LEGAZPI • Tel: 73 16 51


Asteburu absurdua Arrasaten Green Ginger eta Leo Bassirekin

Zer da bizitza? Zer da ongi dagoena, zer da okerra? Zeintzuk dira jarrera egokiak gaur egungo bizitzan?

Galdera hauei erantzuna ematea ez da kontu erraza, historian zehar Aristoteles filosofoengandik gaur egungo pentsalariengana erantzuna ematen saiatu dira. Asteburu honetan galdera hauen, eta gehiagoren, erantzuna aurkituko dugu Amaia Antzokian.

Hori bai, ikuspegi berezi batetik. Antzezlekuan bizitzaren ustezko normaltasuna kokolan jarriko da.

Antzerki asteburu izango da Arrasaten. Larunbatean eta igandean bi talde ezberdin, baina biek gauza bera dute komunean: antzerki absurdua, harrigarria eta ironiaz betea. Bizitzaren eta munduaren ikuspuntu berezia eskaintzen dutenak. Biek ikuslearen partehartzea bilatzen dute, jendea zirikatzea,



Leintz zeramika eskolako kideek emandako lanetako batzuk.

emozioak sortzea.

Larunbatean Green Ginger taldea etorriko da. Hauek antzezlan harrigarriak aur-

kezten dituzte. Zentzugabekeriarik zentzudunena lantzen dute. Ikuslearekin jolasak egingo dituzte.

Igandean gizon kurioso egongo da Arrasaten. Leo Bassi antzezlekura igotzen denean jendea dardarka hasten da. Batzutan kaka zatiak jaten ditu, bestetan ikusleak beldurtu nahi ditu, eta lortu ere. "Instintos Ocultos" lana ekarriko du Arrasatera. Guztiaz barre egitea, bere buruaz hasita, da Leo Bassiren filosofia. Bizitzari buelta ematen dio eta beste modu batera ikusten du.

Ikuslea zirikatzea atsegin du. ikusleei une atseginak eskeintzeaz gain, kolpe latzak sortzen ditu, ikusleak haur-nasketara bultzatzeko. Horretarako iskanbila sortu behar badu, sortuko du.

Gomendio bat: Amaia Antzokira hurbildu asteburu. Bi lanetan gauza interesgarriak aurkituko dituzue, baina badaezbada, ahalegindu lehenengo lerroetan ez esertzen. Momentu dibertigarria pasako duzuela ziur, baina ez oso lasaia agian.

BEGIRALE LANA GUSTUKO DUZULA? ZATOZ UZTAILEAN TXATXILIPURDIREN UDALEKUETARA.

BETEBEHARRAK

- 18 urte beteak izatea.
- Euskara ongi menperatzea.
- Haur eta gaztetxoekin harremanak izateko gaitasuna.

EKARRI BEHARREKOAK

- Curriculumak.
- Argazki bat.
- NANaren fotokopia.

INFORMAZIOA

- Txatxilipurdi elkarteak.
- Pablo Uranga 4, beheak.
- Tel.: 79 54 46

IZEN EMATEA

- Maiatzaren 8a baino lehen.



MIKEL GARAIZABAL, ENOLOGOA

Bako jainkoaren ikasleak

Ardo ikastaroa antolatu du AEDk

Afari dotore bat izanez gero, ona izaten da ardo aproposa aukeratzeko jakitea. Jaki bakoitzak eskatzen duen ardo ongi hautatzen badugu, gure mahaikideak aho zabalik utziko ditugu. Hau guztia, eta gehiago, ikasiko dute AEDk antolatu duen ardo ikastaroko ikasleek. Irakaslea Mikel Gar aizabal elorriotarra da. Mikelek enologia ikasi zuen Biasterin, Laguardian.



baina adinarekin, ikasi egiten da ardo gozatzeko. Zenbat eta gehiago edan, orduan eta gustukoago da.

— Prestatuko diguzu afari baterako ardoen menua?

— Ardo mota ezberdina erabili behar da jaki bakoitzarentzat. Egokiena hautatzea garrantzitsua da, zapoak nabarmentzeko. Hasierako jakiekin aproposa ardo txuria izaten da. Ardo txuria egokia da baita arrain eta entsaladetarako. Pasta edo arroza plateran baduzue, ardo gorria da aproposa, eta urteko ardo beltza haragi bigunekin. Okela gogorak, berriz, kiantza eta erreserbekin jaten baditugu, primerako hautaketa izango da.

— Ze urte izan da onako ardoaren zatza?

— 94. urtea oso ona izan zen, eta 95ak ere itxura ona dauka. 94. urteko erreserba erostea inbertsio ona da. Erosi eta etxean gorde. Urte batzuk barru botailaren balioa bikoiztu egingo da. Batzuen iritziz 94. urteko ardoa "mendeko honetako ardorik onena" izango dela urte batzuk barru..

— Zer ikasiko da ikastaroan?

— Ikastaroaren helburua euskara bultzatzea eta ardoaren esparrua ezagutzeko da. Ardoaren inguruko kontuei errepaso emango diegu. Ardo ezberdinak bereizten ikasiko da, eta ardo nola erabili behar den ikusiko dugu. Ikastaroak bi zati izango ditu: teoria alde batetik, eta dastaketa bestetik. Ikastaroa amaitzean, ikasleek adituak izango dira ardo kontuetan.

— Euskal Herrian badakigu ardo edaten?

— Edateko ohiturak dexente aldatu dira. Duela urte batzuk txikiteoa herriko kirola zen eta ardo asko edaten zen. Orain, berriz, txikiteoa gero eta gutxiago egiten da. Hori dela eta, ardo gutxiago edaten da. Horretaz gain, gaur egungo gazteek garagardoa eta beste edari batzuk edaten dituzte. Ardo gutxiago edaten da, baina kalitatea hobea da. Gizartea aldatu egin da eta honekin, edateko modua ere bai. Baina kalitateari dagokionez, ardo ona edaten da Euskal Herrian.

— Ardo edaten eta gozatzeko ikasi egin behar da?

— Bai. Gazteek nahiago izaten dute garagardoa edo beste edariren bat,

aste gazte

■ BEKAK

• Eusko Jaurlaritzak, kanpo merkataritzaren arloan adituak prestatzeko beka deialdia egin du. Epea: maiatzak 1.

• Musika, dantza, antzerkia eta zaharbertzean espezializazioa burutzeko beka. Epea: maiatzak 15.

• Arte plastikoa, ikus entzuzkoa, argazkigintza, literatura eta musika konposaketaren sorkuntza artistikorako beka. Epea: maiatzak 15.

• Film laburrak produzitzeko laguntzak ICCAk antolatua. Epea: ekainak 23.

■ IKASTAROAK

* MCCren eskutik, gestio ikastaroak eta praktikak Eroski taldeko supermerkatuetan, ekonomia, enpresa eta marketing tituludunentzat. Epea: maiatzak 30.

* Hastapen mailako taila ikastaroa, taileginen elkarteak antolatua.

■ LEHIAKETAK

• EHU-UPVk, Felix Ugarte itzulpen lehiaketa eta fantasia eta ipuin laburren lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. Epea: maiatzak 15.

• Arrasateko Udalak eraturik, San Joan jaietarako horimirudi lehiaketa. Lanak aurleztzeko epea: maiatzak 22.

“94ko urteko ardo erostea inbertsio ona da. Bere balioa urte batzuk barru bikoiztu egingo da”

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Legarren etxebizitza salgai: 3 logela, egongela, sukualdea, bainua eta sotoa. Tel.: 79 62 51.

2. Erosi

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen da San Joan auzoan. 1. Pisua. 3 logela eta egongela. berogailua ere badauka. Tel.: 79 77 13.

• Duplexa alokagai, hondartzatik gertu, Zarautzen. Uztailean eta abuztuan, egoera onean. Tel.: 83 56 36 (gaueko 21:00etatik aurrera).

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atikoa edo teilatupea alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gaeuz.

• Gela baten bila nabil Arrasaten. Tel.: 94-41 62 675. Inigoz galdetu.

• Bi logelako etxebizitza alokairuan hartuko genuke, Arrasaten. Tel.: 939 57 45 31 (Nekane, Unai).

5. Etxe konpartituak

• Lagun bat behar da Makatzenan etxebizitza osatzeko. Tel.: 970 59 73 62. Dei egin 20:30etatik 23:30etara edo mezua utzi.

GARAJEAK

7. Saldu

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 79 18 70

• Olarte kalean garaje itxia salgai. Tabako dendaren azpian. Tel.: 79 91 52.

9. Errentan emateko

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

• Ileaipaindegia saltzen da. Sta. Mari-na, 14 behea. Tel.: 79 73 43.

14. Errentan emateko

• San Joan hotel berritutik gertu eta leku onean 62 m²ko lokala alokagai. Edozein kontsultatarako aproposa. Tel.: 79 18 95.

• Ileaipaindegia batek lokala alokatzen du Esteticien batentzat. Ileaipaindegia Makatzenan dago, 10. zenbakian. Ibaie ileaipaindegia da. Tel.: 76 69 15.

• Arrasaten taberna eskuz aldatzen da. Deitu arratsaldeko 8:00etatik aurrera 77 15 95 telefonora (Agurtzane).

• Taberna eskuz aldatzen da. Tel.: 77 14 93.

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

• Etxabe komertziala: Okendo kalean, 1, 73 m², komuna, argindarra eta ura dauka. Baita 4-6 metroko erakusleihoa izateko aukera ere. Tel.: 79 11 99

LANA

17. Eskaintzak

• Neska arduratsua gertu dago orduka garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun neska zerbitzari lanetan aritzeko prest. Tel.: 79 36 49.

• Neska batek etxeko lanak eta umeak zainduko lituzke. Tel.: 78 33 15.

• Esperientziadun klinika laguntzailerak pertsona helduak zainduko lituzke, goizez, arratsaldez edo gaeuz. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume bat zainitzeko. Tel.: 76 11 57.

• Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

• Esperientziadun neska prest goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Aterteak ere egingo nituzke. Tel.: 79 97 81.

18. Eskaerak

• Euskaldunon Egunakaria Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa edukitzea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arratsaldez.

• Zarugalde 50ean 20-45 urte arteko emakumea behar da dendan lan egiteko. Interesatuak iluntzeko 19:00 etatik 20:00etara pasatu bertatik. Tel.: 77 13 91

• Lagun euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 56 30. Gaeuz deitu.

• Ileaipaindegia batek eskuko ile lehorgailua ondo erabiltzen dakien ilea-paintzailea behar du. Tel.: 79 03 63.

• Aretxabaletan neska euskalduna behar da arrasaldeaz umeak zaintzeko. Tel.: 79 47 85.

• Neska bat behar da jatetxe batean zerbitzari lanak egiteko. Kontratu egingo zaio. Tel.: 945 44 50 95.

19. Denetarik

• Suitzara *au pair* joateko neska bat behar da. Frantses apurbat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiago 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• DBH eta LOGSEko klaseak ematen dira. Klase txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 79 56 78.

21. Eskaerak

• Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00etatik aurrera. Maite.

• 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar

dugu. Tel.: 79 44 11. Anastasio edo Pura.

- LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 84.

- Fisika, kimika eta matamatikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 79 87 19. Leire. 16:00etatik 18:00etara edo 20:00etatik 22:00etara.

- Biologiako ikasleak matamatikako klaseak behar ditu. Tel.: 79 42 64.(Gaueko 22:00etatik aurrera).

- Kart konpetizion pieza askorekin salgai. Tel.: 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

- 205 GTX SS-Y autoa salgai dago. Egoera onean. Tel.: 79 68 63.

- Karabana bat salgai dago. Adria Prima 4,10 m.koa. Merkea. Tel.: 79 18 22.

DENETARIK

26. Saldu

- Gitarra baten anplifikadorea salgai. Yamaha modelo. 25 watio. Tel.: 79 72 76. (Angel.)

- Mendiko bizikleta salgai. 10.000 pta. Tel.: 79 60 81.

- Epson markako orratzeko inprimagailua salgai. Oso egoera onean. Tel.: 71 50 72.

- Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modelo. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

- Mendiko bizikleta bat saltzen da. Neurri ertainekoa eta merkea. Tel.: 77 08 02

- Josteko eta zig-zag egiteko Sigma makina industrialia salgai. Tel.: 79 42 70.

- Pisbul txakurkumeak salgai. Pantxo eta Patrick odol linea. Txakurkume marroiak Rednoserekin eta tigre eraokak zuriarekin. Prezio interesgarria. Deitu gaueko 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 37 17.

27. Erosi

- Bigarren eskuko kafe errotatxoa erosi nuke. Tel.: 79 23 58.

29. Eman

- Bost hileko txakur mestizoa oparitu nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

31. Galdu

- Iturriotzeko Rumba tabernatik Madaleraingo bidean Lotus markako erlojua, urre kolorekoa, galdu nuen. Tel.: 79 42 65. Kontsuelogatik galdetu.

- San Andreseko Errebuelta kalean jertse gris bat galdu nuen apirilaren 3an. Norbaitek aurkituz gero, dei egin 79 09 18 telefonora.

- Apirilaren 17an txakurra galdu zitzaigun Gesalibarren. Setter ingelesa, txuria eta urtebetekoa. Lur da bere izena. Topatzen baduzu deitu, mesedez, 79 33 87 telefonora.

32. Aurkitu

- Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

35. Harremanak

- Euskadi Gazteko makrojairako gonbita baduzu elkarrekin joan gaitzke. Tel.: 79 79 83. Susana.

37. Bestelakoak

- Irrati programa baterako, munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Arrasate Irrati-ko telefono hauetara deitu: 79 58 40 (erantzungailua) edo 79 58 77.

- Artzain txakur aleman emea bilatzen ari naiz, nirearekin ernaltzeko. Nirea artzain txakur aleman-altsaziarra da. Tel.: 79 03 37 edo 79 36 12.

MOTORRA

23. Saldu

- 97ko Golf TDI 90 zaldikoa salgai. Tel.: 76 64 70. Mikel.

- Furgoneta salgai. Ford Transit 2500 turbo diesel eta karrozatua. 3 urtekoa. Tel.: 71 44 16

- Renault 21 TXE salgai, egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 79 43 49 eta 907 48 06 99. Ander.

- Motorra salgai. Montesa kota 314 Trial. Urarekin hoztua. Tel.: 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

MULTIOPTICAS



Zure eguzkitarako betaurrekoak
MULTIOPTICASen erosi ezker, guri
beste batzuk bidaltzen dizkigute.
Guregatik zerbait egiten ari zara.

SOLIDARIOS



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaru barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB" PROGRAMAKO PUNTUAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Tel. 943 76 15 75 20570 BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 Tel. 943 79 29 95 20500 ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2 Tel. 943 20 05 22 20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA


Pl. de La Esmaltería, 7 Tel. 943 51 78 11 20100 ERRETERIA

Erantzun zuzena

Aurreikuspen plana



Bizi ahal izango zara soldataren erdiarekin?



Euskadiko Kutxan, 25.000 familiak baino gehiagok aurreikuspen-produktu bat aukeratu dute erretiroan osagarri on bat izateko.

Zer da?

Aurrezki-sistema pertsonala, borondatezkoa eta pribatua da eta etorkizunean Gizarte Segurantzako pentsioaren osagarri izateko helburua du.

Zenbateko errentagarritasuna ziurtatzen dit?

Legez ezin da planaren errentagarritasuna bermatu. Baina, orientabide moduan, esango dizugu 1989ko abendutik 1997ko abenduaren 31ra bitartean urteko batezbesteko errentagarritasuna %10,78koa izan dela.

Zenbateko ekarpena egin behar da? Hilean gutxienez 5.000 pta.

Eta zenbatero?

Zure gustura. Hilero, hiruhilero, urtero edo zerorrek nahi duzenero.

Alda daitezke ekarpenak eta maiztasuna?

Bai, jakina. Edozein unetan alda daitezke.

Erabili ahal dut dirua plana bukatu baino lehen?

Erabilgarritasuna bermatzen duen ziurtagiri bat ematen dizugu.

Nahiz eta legez gutxienez 10 urte igaro arte itxaron behar den, Euskadiko Kutxak larrialdi edo ezustekoren bat gertatuz gero dirua erabili ahal izango duzula bermatzen dizu ziurtagiri pertsonal baten bidez.

Noiz komeni da hastea?

Une honetan behar garrantzitsuagoak dituzula pentsatzen baduzu ere, Plana orain irekitzeko aholkatzen dizugu. Gogora ezazu malgua dela eta zure beharretara egozki daitekeela.

Eta nola jasoko dut nire kapitala erretiratzeko naizenean?

Hainbat aukera dituzu:

- Guztia batera
- Hilean behingo errentan
- Edo formula misto bat erabiliz.

Ba du beste abantailarik?

Badu oso abantaila garrantzitsu bat. Zure zergak gehien txikitzen dituen Plana da.



Kaleidoskopioa izeneko saiora Gozategi taldea etorriko da.

Gauza ugari ikusteko Arrasate Telebistan

Datorren astea ohikoa baino motzagoa izango da, ostira-lean jaieguna izango dugu eta. Baina ordura arte, Arrasate Telebistak ohiko programazio eskainiko du.

Astelehenean Mondrasport saiora kirol kontu ugari ekarriko du Itxaro Zubillagak. Asteburuan jokaturako partidaz eta berriez gain, Mondrasport lehiaketan sari bikainak irabazteko aukera izango duzue. Beraz, adi-adi segi-

tu saioa, galdera ongi erantzuteko.

Kaleidoskopioan Gozategi taldearen inguruko gorabeherak ezagutuko dituzue. Astearteko saioan musika talde honetako partaideak izango dira. Eta jakina! Ohiko atalak ez dira faltako. Literatura, zinea eta kultura.

Eibar-Gasteiz autobidearen kontuek eztabaida bizia sortu dute gizartean azken boladan. Alde batzuk, aurka

besteak; pil-pilean dagoen gaia da. Klean bizi den iritzia jasotzeko, asteazkenean mahaingurua egingo da. Mikel Irizarrek zuzenduko du, eta jarrera ezberdinak ezagutzera ematea izango du helburu.

Ostegunean Kukaratxa Motlean lehiaketa interesgarria izango da. Finalera iristeko gutxi falta da dagoeneko, eta lehiaketako partaideek su eta gar defendatuko dute euren lekua.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30 **Musika**
- 10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrekin.
- 11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.
- 12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30-11:00 **Goizoro**
- 14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

- Astelehena**
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.
- Asteartea**
22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.
- Asteazkena**
22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginitako magazina.
- Osteguna**
22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.
- Ostirala**
22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

| LARUNBATA, 25 | ASTELEHENA, 27 | ASTEARTEA, 28 | ASTEAZKENA, 29 | OSTEGUNA, 30 | OSTIRALA, 1 |
|---|--|--|--|--|-------------|
| Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepika. | 13:30 Astebete . (Errepika) | 13:30 Mondrasport . (Errepika) | 13:30 Kaleidoskopioa . (Errepika) | 13:30 Mahaingurua . (Errepika) | |
| 13:30 Lotsa barik . Gonbidatua: Saul Osinaga. | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | 19:15 Kukaratxa Motel . <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxoeneko lehiaketa umoretsua. | |
| 14:15 Astebete | 21:30 Mondrasport . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldirako futbito txapelketa, gonbidatuak... eta lehiaketa astelehenero. | 21:30 Kaleidoskopioa . Gonbidatuak: Gozategi taldea. | 21:30 Mahaingurua . Eibar-Gasteiz autobidearen inguruan. Mikel Irizarrek zuzenduko du. | 20:00/20:30/21:00 Berriak . | |
| 14:45 Kukaratxa motel . | | | | 21:30 Kukaratxa Motel . | |



Talde handi hau 55eko soldadugaiek osatzen dute. 1983ko udaberrian bazkaria egin eta honako argazkia atera zuten San Frantzisko elizaren ostean.

Goiko lerroetan ezkerretik hasita: Juan Berezibar, Joakin Gutierrez, Jose Antonio Sara-

sola, Patxi Manzano, Roman Abarrategi, Rufino Altuna, Sabino Martiartu, Javier Egaña, Esteban Atxa, Juanito Olazabal, Jose Maria Lezeta, Jon Zubiaga, Jose Luis Garro,

Anjel Bengoa, Jose Luis Mendizabal, Jose Aiesa, Javier Ajuria, Eduardo Letona, Rafael Mendikute, Juan Maria Azkarate,

Ramon Mendizabal, Simon Madinabeitia, Tomas Uranga eta Jon Mujika.

Soinua duena Anjel Ezkurra da eta bere aldamenekoak: Jesus Azpiazu, Sabino Uribe, Gregorio Zabalo, Paco Molina, Fernando Atxa, Iñaki Yarza, Rufino Bastardo, Isaac Uriarte, Ramon Vitoria eta Rikardo Beitia.

Makurtuta: Rikardo Errasti, Anastasio, Norberto Errasti, Jesus Elorza (apaiza), Javier Armendia, Patxi Odriozola, Ladislao Saiz,

Ignacio Letona, Akilino Fernandez, Jesus Olaizola eta Manolo San Vicente.

Argazkia eta informazioa:
Iñaki Yarza.



- Inportazioko autoak
- Marka guztiak
- Kalitate-preziorik onenak



- Sarrerarik gabeko finantziazioa
- Mota guztietako autoak

• BOLUMENBAKARRAK • LURROROTAKOAK • FAMILIARRAK

Amillaga, 10 B • BERGARA (ITV ondoan) • Tel./Faxa: 76 04 58

Zatoz gurekin, zatoz Institutura!



BATXILERGO GUZTIAK

- Izadi eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.

BIDE IREKIAK

Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

HIZKUNTZAK

Hizkuntzetan eskaintzarik zabalena:

- Ingelesa.
- Alemaniera.
- Frantsesa.
- Italiara.

MODALITATEAK ETA AUKERAKO JAKINTZAGAIAK

Modalitate eta Aukerako jakintzagaiak, besteak beste:

- Errepresentazio-sistemak
- Elektroteknika.
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Laborategi teknikak.
- Ekonomia eta Enpresa antolaketa.
- ...

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

III. MAILAKO MODULUA

- Sistema automatiko eta Programagarriak.

AURRERANTZEAN EZARRIKO DIREN HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ingurugiro-kimika.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.
- Automozioa.

AURRE-INSKRIPZIOA

Maiatzaren 4tik 18ra

MATRIKULA

Uztailaren 1etik 10era

 **arrasate
aretxabaleta**
I N S T I T U T U A

ARRASATE: Sta. Teresa, 25 • 20500 ARRASATE • Tel.: 79 83 00 / 79 44 47 • Faxa: 79 44 37 • E-mail: iarrasate@edunet.iber.net.es.
ARETXABALETA: Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 79 79 00 / 79 79 43 • Faxa: 77 09 55 • E-mail: aretxainsti@jet.es.

Berri gehiagorako



ARRASATE
79 83 00 / 79 44 47
ARETXABALETA
79 79 00 / 79 79 43

INABARMEN ZAITEZ!



CORSA MUNDIAL BERRIA (EDIZIO BEREZIA)

Opel Corsa Mundial, nabarmenduko zaituen ekipamenduarekin
Direkzio lagundua, aleaziozko llantak,
atzeko Spoilerra hiru ateko autoan, tapizeria eksklusiboa.

Benetan berezia. Opel Corsa Mundial
berria kalean da.

Nabarmen zaitetz zure **zure bizitzako motorrarekin.**

OPEL 

 FRANCE 92

PATROCINADOR OFICIAL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK